

BIZITAKO HITZAK (21) •

Pako Aristi

Jainkoari aurrea hartu zion esprinterra

Duela urte batzuk, Urrestilla inguruko parajeetan paseatzeko ohitura neukanean, inoiz ahaztu ez dudana definizio bat entzun nuen suizidioari buruz baserriaren baten ahotik. Zertxobait lehenago, inguruko gazte batek bere buruaz beste egin zuen, eta kontu hori baserriaren hari kontatu nionean, burua astindu eta esan zuen:

—Beraz, Jainkoari aurrea hartu dio!

Halaxe zen, bai, suizidioa kristau gizarte baten zatia: Jainkoa da gure bizitzaren jabe, berak erabakitzen du gure jaiotza, bere esku uzten zen lehen seme-alaben kopurua erabakitzea, eta haren esku zegoen gure azken amasa noiz emango. Abortua Jainkoari kontra egitea da; eutanasia Jainkoari aurre egitea. Esaldi hori gizarte zehatz baten ahotsa dela esan daiteke, bi mila urtetan munduaren gure ikuskera aldatu duen pentsamolde baten laburpena; bi mila urtetan apaizek erlijio katolikoa euskaratzen eta gizarteratzen egin duten ahalgintzaren ondorio distiratsua.

Urte batzuk geroxeago, Azpeitiko taberna batean lagun bat, gaztea, Gioconda Belliri buruz ari zitzaidan hizketan, eta bere poesia liburu bat utzi zidan. Liburua zer moduzkoa zen galdetu nion, eta berak:

—Arrasatu egiten dik!

Hasiera batean ez nuen bere epaia ulertu, eta lagunak bistatik alde egin zuenean, esaldia aztertzeko hasi nintzen. Hura ulertzeko nire ezintasunak hiru oinarri zeuzkan:

1. «Arrasatu» gaztelarazko hitza da.

2. Aditza da; poesia liburu bati buruzko iritzia galdetuz gero adjektibo bat espero duzu, ederra, polita, kaskarra, motela, edozein adjektibo aditza baino lehen.

3. Gaztelaraz arrasatu aditza kirol mailan erabiltzen da, «Beloki arrasó en la final», esaterako, edota naturaren hondamendiak deskribatzeko, «las inundaciones arrasaron la comarca», adibidez.

Horrela bada, poesia liburu baten definizioa gaztelaraz kirol edo hondamendien testuinguruan erabiltzen den aditz batekin emanda ulertzea kostatu egin zitzaidan.

Bi definizioen artean hogei bat urte pasatu dira. Ezer ez hizkuntza baten bizitzan, baina aldaketak gertatzen ari direla erakusteko adina bai. Baserri-tarrak 75 urte inguru zeuzkan; gazteak 22. Ideologia albora utzita, zein ederra baserri-tarraren definizioa, eta zein kaskarra gaztearena!

Baserri-tarraren hizkuntzak, ordea, ez du gaur



egunean balio, eta gaztearena ez zaigu gustatzen. Euskara idatzian aurreratu duguna, badirudi ezin dugula ahozkoan moldatu. Nola iritsi oreka bat euskararentzat bizitasunaren eta edertasunaren artean? Joan gaitezen urrun samar.

1905ean Resurreccion Maria de Azkuek bere *Diccionario vasco-español-francés* atara zuen. Hori egiteko herriz herri ibili ohi zen, lekuan lekuko hitzak eta adierak jasotzen. Horrela, hiztegiko hitz bakoitza non jasoar edo entzuna izan den badakigu.

Azkue gure familiak Urrestillan zeukan taberna-
ra ere etorria omen zen. Aitona umea zen orduan, eta kontatu zidan Azkuek baserriaren zaharrek hitz egin nahi izaten zuela. Gazteekin ez zuen ezer jakin nahi. Horrek adierazten du Azkuek ere bazuela, duela ehun urte pasa, hizkuntzaren kaskartzearen kontzientzia. Hari ere beharbada arrotza egingo zitzaion garaiko gazteen hizketa, eta zaharrena ederretsiko zuen.

Denborak, alabaina, gauzak bere lekuan jartzen ditu. Hain zuzen ere, Azkuek baztertzen zituen gazte haiek dira gure zaharrak, guretzat euskara herriko ederraren eredu izan direnak. Aita Zabalaren Auspoa bilduma, azkarregi desagertzen ari den euskara freskoenaren altzorra, Azkuek erdeinatzen zituen gazte haiek egin da. Azkuerentzat batere balio ez zuten gazte haiek osatu dute guretzat hainbeste balio duen euskara ederraren behartokia. Beraz, nola erabaki hizkuntza baten aldaketan zer onartu eta zer ez? Noraino indartu funtzionaltasuna, eta nola gorde edertasuna adierazpen lotsagarria bilakatu gabe?

Agian Klaudio Landaren «txotxi-ez dakit zer», «morreo moment», «bertso man» eta horrelakoak dira euskararen garapen naturala. Agian, Azkueren hiztegia ez baina Klaudio Landaren hiztegia ezagutuko dute hemendik hirurehun urteko euskaldunek. Euskarak etorkizunari berari aurrea hartu beharko dio nola edo hala.

ZAZPI BEGIKO •

Juan Luis Zabala

kolpean

• Errobiko VI. Jaialdia munduko hainbat musikaren erakusle izango da uztailaren 18tik 21a bitartean. Maroko, Tibet, Kongo, Guadalupe, Euskal Herria... leku eta estilo askotako musikariak entzuteko parada eskainiko du jaialdiak. Hitzordu interesgarria.

Kultura deritzon arloaz

«Kultura gizaki talde baten berezitasunak zehazten dituen ekitaldien multzoa da», adierazi zuen joan den asteartean, Iruñean, Eduardo Galeano idazle ezagun eta goreskiak, «eta, horren baitan, bazkaria edo futbola bezalako elementuak ere hartu behar dira kontuan; kultur sortzaileak dira».

Jaime Anduaga hondarribiar antropologoak *Erokeria* aldizkarian egin dioten elka-

rrizketan adieraziak ekarri dizkit niri gogorra Galeanoren ikuspegiak. Baiona-Donostia Eurohiria egitasmo globalizatzailea du ardatz nagusi elkarriketak, eta Anduaga zorrotz mintzo da proiektu horren arriskuez: «Geu erkidego kultural baten partaideak gara, eta bizirauteko oinarri kultural bat izan behar dugu. Guk baditugu gure berezitasunak, eta horren arabera finkatu dugu gure identitatea, kultura eta izaera.

Hemen eta zenbait herritan hori gertatzen da, errealitatea bortxatzen dela zerbait lortzeko, norbaiten mesederako. Horrela ez da eratzen identitate bat, horrek sekulako gatazka ekarriko digu gero».

Intelektual hitza arbuatu eta gizakia osorik eta hierarkiarik gabe aldarrikatzearen alde agertu zen Galeano Iruñean. Kultura deritzon arloko kazetari gizagaixoon eguneroko kontraesanak ekarri dizkit niri gogorra Galeanoren ikuspegiak, guztia zatitu eta hierarkia baten arabera sailkatzea baita gure eguneroko lanaren funtsa.